




ikastolak



ANDRA MARI IKASTOLA ETXARRI-ARANAZ



Oreka proiektuan, gai desberdinekin lotutako jarduerak egiten ditugu.

Gorputz hezkuntza, ikaslearen garapen integralaren zutabeetako bat da, garapen horretan integratua joan behar duena. Hori dela eta, tradizionalki ariketa fisikoarekin bakarrik erlazionatu den arlo honi, testuinguru bat eta ikuspegi orokorrago bat eman nahi dio orekaz proiektuak. Ikaslearen behar eta interesetara egokitzuz, sormena eta autonomiari protagonismoa emanez eta zeharkako gaiak landuz. Garapen pertsonala, norberaren jokabide motorretik sustatuz norberarengandik besteengana eta kulturarako bidea egitea da arloaren ikuspegia.

Pertsona jartzen dugu erdigunean. Bakarka ariztetik, taldeka arizterera bidaia egiten da. Norberak askatasunez aritzeko aukera ere izaten du zenbait momentutan, barne beharren arabera jardueretatik abiatuz, talde dinamika adostuetarako bidea eginez. Erabiltzen diren espazioak anitzak dira. Ez dira ikastetxeek dituzten espazio egonkor eta

Oreka proiektua Andra Mari Ikastolan

IKASTOLEN ELKARTEAN, GORPUTZ HEZKUNTZA LANTZEKO PLANTEAMENDU PEDAGOGIKO BERRITZAILEA LANTZEN ARI GARA.

📷 Testua eta argazkia Andra Mari Ikastola

estandarizatuak soilik erabiltzen. Inguruko naturak eskaintzen dituen txoko ez egonkor eta ezezagunetan ere kokatzen dira jarduerak. Hau guztia, estresik gabeko giro lasai eta atsegin batean eraman behar da aurrera. Epaietarik eta erasorik gabeko testuinguru batean. Honela, bakoitzak bere burua ezagutu eta gaitasunak ahalik eta gehien gara-

tzeko aukera izango baitu.

Ildo hauek jarraituz, gai desberdinei loturiko unitate didaktikoak sortzen ari gara eta ondorengo testuinguruetan kokatu dira: lurra, elurra, ura, dantza-inauteriak, plazako dantzak, jolas tradizionalak eta kirolak.

Esaterako, aste hauetan lurraren inguruan eginiko unitate didakti-

koan buru belarri sartuak gaude. Lurraren lanketa 4 jarduera desberdinetan banatzen da: mendi ibilaldiak, orientazioa, espeleologia (iluntasuna) eta eskalada (oreka). Jarduera hauetako batzuk, ikastolako soinketa gelan, belardian, kirol pistan eta hormigoizko hodieta izango dira. Beste batzuk aldiz ikastola inguruetan.

Hasiera fasean girotze eta arakatzeko jarduerak izaten dituzte. Fase honetan, gaiarekin zerkusua duen materiala eta baldintza batzuk jartzen ditu irakasleak, eta ikasle talde bakoitzak bere jolasa sortu behar du. Fase honetan sormena, talde lana eta harremantzeko moduak lantzen dira.

Aplikazio fasean, irakasleak 4 jarduera desberdin prest uzten dizkie ikasleei. Kasu honetan espeleologia txokoa, orientazio jarduera, mendi ibilaldia eta eskalada. Ikasleak 4 taldetan banatu eta txoko horietako proposamenaren inguruan hipotesiak bota behar dituzte, jolasaren araurik ez baitute oraindik. Era honetan, pentsatzen ikasten dute, beraien jakin mina eta motibazioa sustatzen diren bitartean. Ondoren, bigarren fase batean, irakasleak diseinaturiko jolasa azaltzen zaie eta horretan jarduten dute, talde guztiak txoko desberdinetatik pasatzen direlarik.

Dinamika berri honetan pertsona jartzen dugu erdigunean, eta askatasunez aritzeko aukera emate zaio

Heziketa fisikoaz gain, ikasle bakoitzak bere indargune eta ahuleziak atzeman, eta autonomia zein sormena lantzen ditu

Sorkuntza fasean, unitatearen ibilbide osoan ikusi duten materiala aurkezten zaie, txokoetan banatzen dira ikasleak eta norberak bere jolasa sortu behar du. Ondoren, talde txikian jolasik onena zein den erabaki behar dute. Eta azkenik, talde txikiak aukeraturiko jolasa talde handiari aurkeztu eta guztiak jardungo dute jolas horretan. Honela, prozesuaren amaieran ikasleak beraien bihurtzen dira jolasaren sortzaile eta bideratzaile ere. Eta unitate amaieren, autoebaluazioa eta koebaluazioaren bidez eginiko ibilbidearen inguruko hausnarketa bideratzen da.

Honela, heziketa fisikoaz gain, ikasle bakoitzak bere indargune eta ahuleziak atzematzen ditu, harreman eta ohitura osasuntsuak garatzeko erremintak lantzen ditu, autonomia eta sormena lantzen ditu, eskal kulturarekin lotura egiten du eta gertuko ingurua ezagutu eta aztertzei aukera du. ●

LEHIAKETARAKO GALDERAK

1. Zeintzuk dira lehenengo unitate didaktikoetan landuko diren gaiak?
2. Zein lau jarduera egin dituzte lurraren lanketan?
3. Zenbat taldetan banatzen dira ikasleak aplikazio fasean?


Bidali zuen erantzunak nie03@ikastola.eus helbidera, zure izen-abizenak, telefono zenbakiak, helbidea eta ikastolaren izenarekin batera.

IRABAZLEAK

OINEZ BALEA (1): Aimar Obregozo (Baztan Ikastola).

OINEZ BALEA (2): Malen Murugarren (Ibaialde Ikastola).

INTERSPORT IRABIA (baloia): Javier Azanza (Auritzeko Eskola).



Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatzen dena betez, zure datu pertsonalak ZOZKETA fitxategian sartuta daudela eta horren helburua erakundeak antolatutako zozketak kudeatzea dela jakinarazten dizugu. Fitxategia Datuak Babesteko Agentzian aitoritu dugu eta datuen segurtasuna bermatzeko neurriak ezarri ditugu.